

B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

Goi-mailako
joskintzako tekniken
sakontzea.
Jantzigintza

Online ikastaro tutoretzaduna

Cristobal Balenciaga Museoak bere hamargarren urteurrena beteko du 2021ean. Museoak iraganaren balantzea egiteko, oraina ospatzeko eta bere etorkizunaren bide estrategikoari begiratzeko baliatuko du okasio hori.

Testuinguru horretan, Museoak programa berezi bat aurreikusi du, bai erakusketari dagokionez, zein hezkuntza jardueri dagokionez. Programa horren helburua Cristóbal Balenciagaren ondarea diseinatzaile belaunaldi berri bati helaraztea da.

Cristóbal Balenciagaren obraren bereizgarri nagusiak esperimentazio eta berrikuntza formala dira, betiere, oinarri harturik teknika menderatzea, ehuna ezagutzea eta hobekuntza ebolutiboa, zeinari esker izan baitzen haren lana bilakaera iraunkorreko ziklo moduko bat.

Duela hainbat urte eskaintzen dituen eskola magistralen programaren bidez, Cristóbal Balenciagaren balioak eta, batik bat, teknikak hedatu nahi ditu Museoak, gaur egungo modaren testuingurura egokiturik. Horretarako, saio teoriko-praktikoak proposatzen ditu, Maisuaren ondare teknikoa transmititzeko goi-mailako gaitasunak dituzten profesionalek gidatuta. Jarduera trinkoak izaten dira, Museoan egin ohi dira, eta, haien bidez, Balenciagaren unibertsoan murgiltzeko aukera dute parte-hartzaileek. Eta egungo salbuespenezko egoeretara egokitzen diren online prestakuntzako formula berriak.

Aurten, eskola magistralen programazioa proposamenen areagotze garrantzitsu batekin osatu da. Berrikuntza gisa, goi-mailako jostkintza zein fantasia tekniketan ezberdindutako bi ibilbide proposatu dira, eta horietan sakontzeko bi maila.

Jostkintza ibilbidea

GOI-MAILAKO JOSKINTZAKO TEKNIKEN SAKONTZEA. JANTZIGINTZA

Datak	Martxoak 1-21
Modalitatea	Online
Izena emateko epearen argitalpena	Urtarrila

GOI-MAILAKO JOSKINTZAKO TEKNIKEN HASTAPENA. JANTZIGINTZA

Datak	Irailak 10-12
Modalitatea	Aurrez-aurrekoa
Izena emateko epearen argitalpena	Ekainak

Fantasia ibilbidea

GOI-MAILAKO JOSKINTZAKO TEKNIKEN HASTAPENA. FANTASIA

Datak	Maiatzak 21-23
Modalitatea	Aurrez-aurrekoa
Izena emateko epearen argitalpena	Martxoak

GOI-MAILAKO JOSKINTZAKO TEKNIKEN SAKONTZEA. FANTASIA

Datak	Uztailak 12-16
Modalitatea	Aurrez-aurrekoa
Izena emateko epearen argitalpena	Maiatzak

Museoak beretzat gordetzen du ospakizun-data horiek aldatzeko eskubidea, edo, ezinbestean, programa zati batean edo osorik ezeztatzea.

Goi-mailako joskintzako tekniken sakontzea.

Jantzigintza

COVID-19ak sortutako osasun-krisiak eta agintari eskumendunek hari aurre egiteko ezarritako segurtasun-neurriek eragin sakona izan dute gurearen moduko erakundeen funtzionamenduan, eta, zehazki, era honetako hezkuntza-proiektuen garapenean. Hain zuzen ere, distantzia fisikoa kontuan hartu beharrak eta joan-etorrietarako sortutako eragozpenak direla-eta, ezinezkoa izango da klase magistralen programa bere osotasunean aurrez-aurre gauzatu. urterako antolatutako eskola magistralak aurreikusitako moduan aurrera eramatea. Errealitate horren aurrean, eta gaur egungo salbuespeneko egoerei erantzuteko, Museoak Maisuaren ondarea transmititzeko bide berrien aldeko apustua egin du, eta, lehen deialdiak izandako harrera bikainaren ondoren, joskintzako goi-mailako joskintza teknikei buruzko online ikastaro tutoretzadunaren bigarren edizioa aurkezten du.

Ikastaro honek Balenciaga Etxeko joskintza tailerretan erabilitako metodo zehatzetara hurbilketa proposatzen du, jakaren elementu jakin batzuk ardatz harturik, zehazki. Ez da jaka osorik egingo, horren zati bat esperimentazio-esparru gisa erabiliko da.

Prestakuntza-ekimena 7 modulutan antolatu da, eta oinarri izango ditu, batetik, ikus-entzunezko edukiak, egin beharreko ariketak azaltzeko eta nola egin ikasteko berariaz sortuak, eta, bestetik, online tutoretza-saioak, modulukakoak, irakasleak parte-hartzaileen zalantza eta galderei erantzuteko.

Ikus-entzunezko edukietan, joskintzako eta lisatzeko teknika propioak erakutsiko dira, eta, parte-hartzaileek teknika horietan gaitasun praktikoa har dezaten, prozesu horiek errepikatu beharko dituzte, ikasitakoa praktikara eramanez.

EGITARUA

I MODULUA JAKAREN AURREALDEA

Ariketa honetan, joskin-jaka baten aurrealdea sortu beharko da, artilezko ehun koadrodun batekin. Prozesu horretan, arreta berezia eman beharko zaio patroia ehunean kokatzeari eta marrazteari, eta, batik bat, ehunaren motiboaren gaiari. Azken emaitza ahalik eta harmoniatsuena izan dadin, koadroak ezin hobeki lerrokaturik markatu, moztu eta josiko da pieza. Honako urrats hauei jarraituz, zehazki:

- A. Ehuna prestatzea eta lisatzea
- B. Aurrealdea markatzea
- C. Aurrealdea moztea
- D. Artehuna moztea
- E. Artehuna aurrealdeari atxikitzea

II MODULUA JAKAREN PAPAR-HEGALA

Bigarren ariketan, papar-hegalari berezko forma kurbatua emateko artehunarekin nola pikatu behar den aztertuko da, baita xingolaren aplikazioa ere, aurreko ertza deforma ez dadin.

- A. Papar-hegala pikatzea
- B. Xingola artehunari aplikatzea
- C. Artehuna doitzea
- D. Xingola oihalera ustea

III MODULUA JAKAREN ALOZAK ETA HEGALA

Modu asko daude alozak egiteko, erabili nahi den ehunaren arabera. Adibide honetan, ehunaren motiboak elkartuz, aloz irekiak lantzea izango da proposamena.

- A. Alozak albaintzea
- B. Alozak makinaz jostea eta ertzak eskuz errematatzea
- C. Alozak moztea eta lisatzea
- D. Artehuna moztea, gainezartzea, eta aurrealdeari atxikitzea
- E. Hegalaren atxikitzea eta lisatzea

IV MODULUA JAKAREN BISTA

Modulu honetan hegalaren bistaren aplikazioa nola gauzatu erakutsiko da ehunaren motiboaren jarraipena zainduz; motiboak ehunaren aurreko ertzean etenik gabe jarraitasuna izatea bilatuko da.

- A. Bista kokatzea
- B. Ertza albaintzea eta jostea
- C. Papar-hegalaren etena albaintzea
- D. Papar-hegala lisatzea

EGITARAUA

V MODULUA JAKAREN BARRENA

Goi-mailako jostintzako jantzigintzan, barrenak sendotu egiten dira, zeharkako artehunezko pieza baten bidez, trinkotasuna har dezaten eta formari eutsi diezaioten. Modulu honetan, barrena nola egin erakutsiko da.

- A. Barrena markatzea
- B. Artehuna zeharka aplikatzea
- C. Barrena albaintzea
- D. Barrenaren puntua egitea arتهunaren eta ehunaren artean
- E. Barrena lisatzea

VI MODULUA BOTOI-ZULOA

Balenciaga etxean, ehun bereko zerrendez egiten dira botoi-zuloak. Ehunek marraskia badute, gaiak bat etorraraziko dira, botoi-zuloa multzoan erabat ezkatatuta edo integratuta gera dadin. Ariketa honetan, emaitza hori lortzeko zer prozedura erabili behar den azalduko da.

- A. Botoi-zuloaren kokalekua markatzea
- B. Botoi-zuloaren luzera eta zabalera markatzea
- C. Zerrendak aplikatzea, aurreko aldetik, gaiak bat etortzeko moduan
- D. Botoi-zuloa moztea
- E. Zerrendak barnealderantz iraultzea eta joskurak lisatzea
- F. Puntu ikusezina egitea, zerrenden zabalera definitzeko
- G. Botoi-zuloaren angeluak jostea
- H. Lisatzea eta soberako ehuna moztea

VII MODULUA POLTSIKOA

Botoi-zuloekin bezala, marraskia duten ehunetan, poltsikoaren gaia aurrealdearen gaiarekin bat etor dadin bilatzen da, eta, hain zuzen ere, hori nola egin erakutsiko da modulu honetan. Era berean, poltsikoaren barnealdea arتهunaz sendotuko da, forma mantentzeko.

- A. Poltsikoaren kokalekua markatzea
- B. Poltsikoaren ireikiunerako zerrenda aukeratzea, marraskia bat etor dadin ongi zainduz
- C. Poltsikoaren zerrenda markatzea
- D. Artehuna aplikatzea, gurutze puntuz
- E. Zerrendaren ertzak ixtea
- F. Zerrendaren joskurak doitzea
- G. Zerrendaren alboak aurrealdeari jostea
- H. Zerrendaren joskuran puntada ikusezina egitea, barnealdea finkatzeko
- I. Poltsikoa lisatzea

EGUTEGIA

I MODULUA JAKAREN AURREALDEA

Modulua egiteko datak	Martxoak 1-7
Aurreikusitako dedikazio-denbora	3 ordu
Moduluaren tutoretza-eguna	Martxoak 2

II MODULUA JAKAREN PAPAN-HEGALA

Modulua egiteko datak	Martxoak 1-7
Aurreikusitako dedikazio-denbora	3 ordu
Moduluaren tutoretza-eguna	Martxoak 4

III MODULUA JAKAREN ALOZAK ETA HEGALA

Modulua egiteko datak	Martxoak 1-7
Aurreikusitako dedikazio-denbora	2 ordu
Moduluaren tutoretza-eguna	Martxoak 4

IV MODULUA JAKAREN BISTA

Modulua egiteko datak	Martxoak 8-14
Aurreikusitako dedikazio-denbora	2 ordu
Moduluaren tutoretza-eguna	Martxoak 9

V MODULUA JAKAREN BARRENA

Modulua egiteko datak	Martxoak 8-14
Aurreikusitako dedikazio-denbora	2 ordu
Moduluaren tutoretza-eguna	Martxoak 11

VI MODULUA BOTOI-ZULOA

Modulua egiteko datak	Martxoak 15-21
Aurreikusitako dedikazio-denbora	3 ordu
Moduluaren tutoretza-eguna	Martxoak 16

VII MODULUA POLTSIKOA

Modulua egiteko datak	Martxoak 15-21
Aurreikusitako dedikazio-denbora	3 ordu
Moduluaren tutoretza-eguna	Martxoak 18

Javier Martín

Javier Martín Ávilan jaio zen, baina Madrilen bizi da. Madrilgo Unibertsitate Politeknikoan graduatu zen, 1991. urtean, modako goi-mailako diseinatzaile gisa. Prestakuntza-urteetan, Carmen eta Emilia Carriches ezagutu zituen. Bi emakume horiek hiriburuko EISA tailerreko langileak ziren, baita tailerreko buru Felisa Irigoyenen eskuineko eskuak ere. Bi emakume horiengandik Getariako moda-sortzailearen jostkintza-teknika espezifikoa ikasi zituen eta, ondoren, bere diseinuak zehaztu dituzten bolumenen eraikuntzari buruzko ezagutza ere jaso zuen.

Hamar urtean Sybillaren taldeko kidea izan zen, 2005era arte. Urte horretan, goi-mailako jostkintzara bideratutako bere marka propioa sortzea erabaki zuen, Nihil Obstat izeneko. Diseinatzaile gisa eta beste sortzaile batzuekin lankidetzan aritzen da; esaterako, Carmen March, Jesús del Pozo edo Joaquín Trías sortzaileekin. Azken hori Balenciaga etxeko maniki baten biloba da. Horiei guztiei aholkularitza teknikoa ematen die. 2012tik 2019ra, DELPOZO marka espainiarerako egiten du lan. Bertan, bildumaren zati baten bolumenak modelatu eta garatzen ditu, eta nazioartean sona duten luxuzko *prêt-à-porter* jantziak egiten ditu.

Irakaskuntzan ere aritzen da eta Espainiako Gobernuko Hezkuntza Ministerioko hezkuntza-proiektuetan parte hartu du. Horrez gain, Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko Centro Superior de Diseño de Modan, Diseinuaren Europako Institutuan, eta Granadako Estación Diseño izeneko eskolan diseinuari eta modelatzeari buruzko ikastaroak eman ditu, besteak beste. 2015. urteaz geroztik Cristóbal Balenciaga Museoren hezkuntza programan parte hartzen du, Balenciaga Etxeko tailerretan erabilitako jostkintza teknikak bildu eta helaraziz.

© Cristóbal Balenciaga Museoa



INFORMAZIOA

DATAK

2021eko martxoaren 1etik 21era.
Jarduerari eskaini beharreko orduen estimazioa,
18 ordu + tutoretza-orduak.

ORDUTEGIA

Parte-hartzaile bakoitzak aukera izango du jarduerari eskaini beharreko denboraren estimazioaren arabera antolatzeko ordutegia, betiere, modulu bakoitzerako finkatutako daten barruan. Tutoretzako saioak, bestalde, astearte eta ostegunetan izango dira, arratsaldean (Espainiako ordua), eta ordubeteko iraupena izango dute.

HIZKUNTZA

Gaztelania.

PARTE-HARTZAILEAK

Moda diseinuko, patroigintzako edo/eta joskintzako ikasle edo tituludunak, eta jantzigintzako goi-mailako joskintzako tekniketan lehen urratsak egiteko interesa duen edonor.

PARTE-HARTZAILE KOPURUA

30 lagunek parte hartu ahal izango dute jardueran, gehienez. Parte-hartzaileak aukeratzeko, eskatutako dokumentazioa hartuko da oinarri, eta otsailaren 16tik aurrera jakinaraziko da plazen esleipena.

BALDINTZAK

Interesdunek joskintzako tekniken ezagutza eduki eta egiaztatu behar dute, eta gai izan behar dute jantzi bat mozteko, albaintzeko eta josteko.

IZEN-EMATEA

Izena emateko epea zabalik izango da ikastaroa argitaratzen den egunetik otsailaren 11ra (egun hori barne, 14:00ak arte), eta izena emateko *online* formularioa bete behar dute interesdunek. Curriculum vitae-a aurkeztu behar da, modaren esparruko prestakuntzaren eta esperientziaren berri emanez, baita interesdunaren motibazioari buruzko gutun bat ere, aditzera emanez jardueran parte hartzeko duen interesa eta haren edukiarekiko duen lotura. Osorik aurkezten ez diren eta epean kanpo aurkezten diren eskariak ez dira kontuan hartuko.

INFORMAZIOA

PREZIOA

325 €. Prezioak materialak eta hauek penintsulara bidaltzea barne hartzen ditu, ariketak egiteko beharrezkoak. Beharrezkoen sorta bat prestatuko du Museoak parte-hartzaile bakoitzarentzat, artilezko ehunarekin eta artehunarekin, barne dela patroia ere; material sorta hori adierazitako helbidera igorriko zaie parte-hartzaileei, prestakuntza hasiera data baino lehen.

Penintsulatik kanpo bizi diren parte-hartzaileek, matrikulaz gain, bidalketaren kostua ere beren gain hartu beharko dute, destinoaren arabera. Hona hemen kostu osagarri horiek:

Balearrak eta Kanariak 16 €
EB (1. gunea: Portugal) 19 €
EB (2. eta 3. eremuak: Frantzia eta Italia) 32 €

Zerrenda honetatik kanpo geratzen diren herrialdeetan bizi diren pertsoneri, Museoak irizpideak eta betekizunak emango dizkie beren herrialdeetan beharrezko generoa eskuratu ahal izateko, eta, kasu horretan, matrikularen kostua 305 € izango da.

Bestalde, parte-hartzaileek josteko oinarrizko lanabesak eduki beharko dituzte (jostorretzak, orratz burudunak, zinta metrikoa, marka-harria, etab.), baita eskudra, josteko makina, lisaburdina, lisatzeko zapia, lisatzeko kuxina, eta manikia ere, eta ordenagailua edo/eta tableta, eta Interneteko konexioa, ikus-entzunezkoak ikusteko eta *online* tutoretzak egiteko.

PLAZA MUGATUAK / IZEN-EMATEA BEHARREZKOAK DA

Parte-hartzaileen gutxieneko kopururik lortzen ez bada, jarduera bertan behera gelditzen dela jakinaraziko zaie interesdun guztiei, eta matrikularen zenbatekoa itzuliko da, hala dagokion kasuetan.

Amaitzean, jardueran parte hartu izanaren egiaztagiria emango da.

HARREMANETARAKO

T +34 943 004 777
info@fbalenciaga.com

Laguntzailea



kutxa kultur
moda
kutxa FUNDAZIOA

B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

Aldamar Parkea 6
20808 Getaria - Gipuzkoa - España
T 943 008 840
info@cristobalbalenciagamuseoa.com
www.cristobalbalenciagamuseoa.com



Biarritz — 71km	GPS
Bilbao — 81km	43° 18'6.92" N
Donostia/San Sebastián — 25km	2° 12' 18.77" W
Iruña-Pamplona — 97km	
Vitoria-Gasteiz — 83km	